



2025SPLE0004  
4.bilera: OHIKOA 2025/05/29

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/04

EGUNA: 2025/05/29

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

### BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

### EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieto Egaña.

### EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Jon Ander Urain de Jesus.

### Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra.

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

### 1.- Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2025eko martxoaren 27an eginiko osoko bilkuraren ohiko

bileraren akta.

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen , 2025eko martxoaren 27an egindako Osoko Bilkuraren bileraren akta.

## **2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote zuen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak, 156/2025etik 163/2025era bitarteko dekretuen harira, azaldu zuen denek Udaltzaingoaren bitarteko funtzionarioen soldaten buruzkoak zirela, baina, lehenengo seiak erreklamazioa onartzeari buruzkoak diren bitartean, azken biak soldaten parekatzea aipatzen dutela, eta galdetu zuen ea zein zen haien arteko aldea.

Alkateak erantzun zion, lanean ari ziren udaltzainek erreklamazio bana aurkeztu zutela, eta horien erantzuna direla lehenengo sei dekretuak, beste biek, berriz, dagoeneko lanean ez zeuden bi udaltzainenak direla, erreklamazioa aurkeztu ez zutenak, baina, erregularizatu den garaian lanean egon zirenak, eta horien soldatak ere erregularizatzea erabaki zela .

Gilen Garciak, 204/2025 Dekretuaren harira, «*Bizikidetza Lantzen programa finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako dirulaguntzen deialdira aurkeztea*» galdetu zuen ea zer proiektu-edo aurkeztu ote den dirulaguntza eskatzeko.

Alkateak erantzun zion, Bizikidetza Lantzen programaren barruan sartzen dela egiten den Bizikidetza Batzordea. Foru Aldundiak dirulaguntza batzuk ematen dituela horretarako, eta Bizikidetza Batzordearen jardueraren memoria bat igortzen dela, eta 11.063,40 euroko dirulaguntza eskatu zela, hau da, ekimenaren %80a.

Ez zen egon galdera edo iradokizun gehiagorik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

## **3.- Onartzea, hala badagokio, 2026ko abuztuaren 17a, tokiko jai eguna deklaratzeko.**

Apirilaren 25ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2026. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen apirilaren 8ko 82/2025 Dekretua, eta hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera udalek hilabeteko epea dute tokiko jai eguna proposatzeko Laneko eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari. Dekretu horretan jasotzen denez, proposamena osoko bilkurak egin behar du.

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko maiatzaren 19an egindako ohiko bileran, 2026an San Roke eguna igandea denez, hurrengo eguna, abuztuaren 17a, Debako tokiko jai eguna deklaratzeko proposamenaren aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen Laneko eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari proposatzea 2026ko abuztuaren 17a, San Roke egunaren hurrengoa, Debako tokiko jai eguna deklaratzeko.

## **4.- Onartzea, hala badagokio, Musika Eskolako 2025-2026 ikasturterako matrikulazio kuotak.**

Alkateak azaldu zuen dokumentazioarekin batera Musika Eskolako Patronatuak maiatzaren 8an egin zuen bileraren akta igorri zela, eta bertan, 4. puntuan, azaltzen zela 2025-2026 ikasturterako matrikulazio kuoten proposamena. 2024-2025 ikasturtean matrikulazio kuotak ez zirela eguneratu, eta 2025-2026 ikasturterako proposamena zela udal zergak eta tasak igo diren batez besteko ehuneko bera aplikatzea Musika Eskolako kuotak eguneratzeko, hau da % 5a. Eta horrekin batera, proposatzen zela, gizarte laguntza jasotzen duten familiei % 80ko hobaria aplikatzea, eta, familia ugariei, berriz, % 20ko hobaria aplikatzea, Udalak antolatzen dituen beste ikastaro eta



2025SPLE0004  
4.bilera: OHIKOA 2025/05/29

jardueratan (Gozatuz, Uda Kirola, ...) egiten bezala.

Udalbatzak, aho batez, erabaki zuen onartzea Musika Eskolako 2025-2026 ikasturterako matrikulazio kuotak, eta gizarte laguntza jasotzen duten familiei % 80ko hobaria aplikatzea, eta, familia ugariei, berriz, % 20ko hobaria aplikatzea.

### **5.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien elkargo ofizialaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.**

Alkateak azaldu zuen 2024ko abenduaren 23an hitzarmen bat sinatu zela Gipuzkoako Farmazialarien elkargo ofizialarekin etxex-etxeko zerbitzuaren erabiltzaileei, botikak modu egokian hartzeko laguntza emateko. Orain, Eudel eta Gipuzkoako Farmazialarien elkargoak esparru-hitzarmen bat sinatu zutela, eta 2024ko hitzarmenean jasotakoaz gain, hitzarmena zabaltzea, egoera zaurgarrian egon daitezkeen edo arazo sozio-sanitario izan ditzaketen pertsonak farmazialarien bitartez aurrez detektatzeko programa martxan jartzeko.

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debako Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien elkargo ofizialaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena, eta alkateari berariazko ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

### **6.- Onartzea, hala badagokio, EH Bilduk aurkeztutako “Bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko prozedurari hasiera ematea” mozioa.**

Alkateak, EH bildu taldeko bozeramaileari eman zion hitza mozioa aurkez zezan, eta Gilen Garciak mozioaren testua irakurri zuen:

#### **«BIZITEGI-MERKATUKO TENTSIO EREMU IZENDATZEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEA**

*Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2025eko apirilean argitaratutako txostenean maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak tentsio eremu bat izendatzeko proposatzen dituen adierazleei dagokienez EAEko udalerriek duten egoera eguneratua jaso du. Txosten hau Eustaten azken datu ofizialetatik eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren datuetatik abiatuta egin da.*

*Tentsio eremu izendatzeko irizpideei dagokionez, txostena legeak proposatzen dituen irizpideetan oinarritu da, hauek hiru izanik:*

1. *Irizpidea: alokairuaren prezioaren igoera azken 5 urteetan > KPI + 3 puntu:*
  1. *Batez besteko alokairu errenta, udalerriaren arabera eta Euskadiko KPIa erabili dira adierazle gisa.*
2. *Irizpidea: salerosketaren prezioaren igoera azken 5 urteetan > KPI + 3 puntu:*
  1. *Udalerri bakoitzeko salerosketen prezioa eta Euskadiko KPIa erabili dira adierazle gisa.*
3. *Irizpidea: etxebizitza ordaintzeko ahalegin ekonomikoa > % 30:*
  1. *Alokairuan dauden familien ahalegin ekonomikoa kalkulatzeko formula honakoa da: alokairu-errenta + hornigaien gastuak > familiaren diru- sarreraren %30.*

2. Erabilitako adierazleak: familien batz besteko errenta erabilgarria, udalerriaren arabera; batz besteko alokairu-errenta, udalerriaren arabera; etxeko oinarrizko hornigaien gastuak.

*Txostenak horrela jasotzen du Gipuzkoari dagokion atalean: "1.1 irizpidearen bidez. Alokairuaren prezioa igotzea informazio estatistikoa dagoen azken 5 urteetan. Tentsio handiko eremu gisa sailkatuta daude Bergara, Deba, Getaria, Hondarribia, Orio, Sorluze eta Tolosa udalerriak".*

*Goian azaldutakoa eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutako "EAEn etxebizitzari buruzko estatuko legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko protokoloa, bizitegi-merkatuko tentsio eremuak izendatzea arautzen duena" kontuan izanik, gure udalerria tentsio eremu izendatua izan dadin prozedura abiatzeko aukera baliatu behar dugu.*

*Horretarako, EAEn eremu bat bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko protokolo proposamena jarraitzea da bide zuzena.*

*Horrenbestez, Debako Udalak adosten du:*

1. *Deba udalerria bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko prozedurari hasiera emango diola lehentasunez.*
2. *Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen sailarekin elkarlanean, prozedura hasteko honako pausoak emango dituela:*
  1. *Prozedura hasteko eskaera egitea, dagozkion agiriekin batera.*
  2. *Eusko Jaurlaritzan etxebizitza arloko eskumena duen sailari, eskatzen duen, informazio gehigarria helaraztea.»*

*Alkateak Orain Deba eta EH Bilduko ordezkariak galdetu ziren ea mozioaren inguruan zerbait adierazteko ote zuten. Ondoren, mozioari erantzuteko testu hau irakurri zuen:*

*«Etxebizitzaren gaiaren lanketarekin hilabeteak daramatzagu eta maiatzean izan genuen gure herria tentsionatutako gune izendatua izan zitekeela zioen berria.*

*Une honetan tentsionatutako gune izateak zer suposatzen duen, egoera horretatik ateratzeko aukerak zein diren eta zein bide jarraitu beharko genukeen aztertu beharrean gaude.*

*EH Bilduren taldeak gaurko Osoko Bilkurarako mozioa sartu du Udalak gure herria gure tentsionatu izateko aurrerapausoak eman ditzan. Hau izan da, ordea, gai honen inguruan EH Bilduk egin duen lehen proposamena. Ez du aurreko astean izandako Lurraldetasun Batzordean inolako aipamenik egin, eta ezta gaia aztertzea komeni dela adierazi ere.*

*Uste dugu gune tentsionatu izateak izan ditzakeen ondorioak eta hauen irtenbideak lasaitasunez landu behar direla eta Osoko Bilkura ez da horretarako gunea, beste bat baizik.*

*Eta hain zuzen hori proposatu diogu EH Bilduri, datorren hilean zehar gaia elkarrekin lantzea eta ekaineko Lurraldetasun batzordean irizpena eman ondoren, behar izanez gero, osoko bilkurara ekartzea.*

*Beraz, arrazoi horiek medio, Udal gobernu honek ezezkoa esango dio mozioari. Gaiaren garrantziaz jabetuta, ordea, hori lantzeko konpromiso osoa adierazten du.*

*Baina argi utzi nahi dut, udal gobernu honen ustetan, udalerri tentsionatua izendatzeko eskaera egitea ala ez egitea, seriotasunez eta arduraz hartu beharreko gaia dela. tentsionatutako udalerria izatea ez delako etiketa hutsa soilik.*



2025SPLE0004

4.bilera: OHIKOA 2025/05/29

*Gogora dezagun Deba udalerri tentsionatua izateko dauden hiru baldintzetako bat betetzen duela eta baldintza hori alokairuen prezioei lotuta dagoela. Kasu honetan, Deba udalerri tentsionatua izendatzeak alokairuko etxebizitzaren prezioari muga bat jarriko lieke. Horraino ados. Baina aldi berean konpromiso legal garrantzitsuak ekarriko lituzke bai Udalarentzat, baita etxebizitzaren jabe eta maizterrentzat ere. Eta horrez gain, tentsionatutako gunetik irtetzeko 3 urteko Ekintza Plan bat aurkeztu beharko genuke, alokairuari loturiko eskaera eta eskaintza berrorekatu eta egoera horretatik irteteko. Helburu nagusia, hain zuzen, hori delako, 3 urtetako epean gune tentsionatutik irtetzea.*

*Gogorazi behar dut, baita ere, udal gobernu honek, EH Bildurekin lankidetzan, Etxebizitza Plan bat garatzen ari dela. Etxebizitza Plan horrek 3 ardatz estrategiko jasotzen ditu eta horietako bat, hain zuzen, alokairuari loturik dago. Eta horri lotuta, azpimarratu behar dut, etxebizitzaren alokairuen prezioekin zer egin daitekeen aztertzea eta irtenbideak ematea, lehentasuneko gai bezala jasota dagoela Etxebizitza Planean*

*Debarrek konponbideak merezi dituzte eta ez horrelako tira-birak. Eta gobernu-talde honek lanean jarraitzeko gonbidapena luzatzen dio EH Bilduri, seriotasunez eta lasaitasunez, inprobisazioa eta presak baztertuta, eta ekainean zehar lanerako hitzordu batzuk finkatzea gure udalerriaren eta debarren interesak lantzeko.»*

Gilen Garciak azaldu zuen, egia zela txostena argitaratu zenetik lehen aipamena eurek kaleratutako prentsa oharra izan zela, eta Lurraldetasun Batzordean ez zela landu gaia, ez baitzegoen argi, baina uste zutela prozedura hasteko erabakia hartu beharko zela. Mozioarekin alkatearen bulegora joan zenean adierazi zuela ziur zegoela gai horrekin adostasuna lortuko zutela. Nabarmendu nahi zuela izan diren Lurralde Batzordetan, eta Etxebizitza Plana lantzeko bileratan, seguru, gutxienez, behin, aipatu zela tentsio guneen gaia, hau da EH Bilduk aurrez arduratu eta komentatu izan duen gaia dela. Egia dela lan bilera batzuk izan direla, baina udal gobernuak kide batek bilera horietan izan duen tonu eta jarrera erasokorra eta mesprezuzkoa, desatseginak izateaz gain, zalantzan jartzen duela elkarlana. Hala ere, udal gobernuari hitza hartzen ziola, eta EH Bildu taldearen konpromisoa adierazten zuela, egiten zieten eskaintza horretan bide hobe bati ekiteko, eta ez, alkateak adierazi zuen bezala, talka horretan ibiltzeko. Akordio batera heldu beharko direla, konbentziturik baitago, lehenago edo beranduago, Deba gune tentsionatua izendatuko dela, eta elkarlanaren bideari eutsi behar zaiola, eta luzatu zaien eskaintzari baiezkota ematen ziotela, eta bilera guztietan egongo direla. Etxebizitza Planaren buruz, proposamenak eta galdera badituztela, eta horretarako babes teknikoa beharrezkoa dela, bai udal teknikoaren aldetik, bai Eusko Jaurlaritzaren aldetik.

Gaia ixteko, alkateak azaldu zuen lanari ekingo diotela, eta tonuari buruz, askotan tonuak desatseginak izaten direla alde guztietatik, ziur, euren aldetik ere. Horregatik, denoi eskatzen zela tonu horiek apaltzea, beste tonu batzuetan lan egiteko, bestela tentsioak ondorio okerrak sortzen dituela.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko sei botoekin, eta aurkako zazpi botoekin, ez zuen onartu EH Bilduk aurkeztutako "Bizitegi-merkatuko tentsio eremu izendatzeko prozedurari

hasiera ematea" mozioa.

## 7.- Eskari eta galderak.

Ez zen egon eskaririk ez eta galderarik ere.

Amaitu aurretik, Alkateak gogorarazi zuen hurrengo ohiko bilera ekainaren 26an, arratsaldeko zazpitan, izango zela.

Besterik ez zegoenez, 19:5etan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika  
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra  
Idazkaria

